

Vacilus

Diruaren usainea



Irteerarik gabeko kale batean bizi diren 3 eskalaren istorioa da Vacilus. Behin, batek herentzia bat jasotzen du. Egun batetik bestera aberats bihurtzen dira eta beren barrenean lo egon diren ametsak iratzarri egiten dira.

ainhoa irazu

Vacilus La Burla eta Yu-yu taldeen koprodukzio bat da. Taldeok ardura-tu dira antzezlanaren goitik behera egiteaz: gidoia, eszenografia, musika, argiztatzea, jantziak.... Lan txukuna egin dute *troupe* horietako partaideek.

Istoria kale batean kokatzen da. Farola bat, sare bat, pixa-potea eta hiruzpalau zabor ontzi beltz baino ez daude bertan. Hantxe ematen dute eguna zein gaua gure protagonistek: Belinda Pufok (Paki Caballero), Truko Cabronek (Iñaki Puga) eta Kalek (Inma Irazustabarrena). Hantxe egiten dute amets, hantxe kaka.

Vacilus komedia bat da; «absurdoa,

baina ez arraro horietakoa», esan digu Javi Alonso gidoiaren egile eta aktoreen zuzendariak. Antzezlanari ipuinaren egitura eman nahi izan dio egileak. Diruaren boterea du hizpide.

«Pertsonak dirua tartean dagoenean egiten dituzten tontakeriez mintzo gara. Diruak gauza askoren gaineratik agintzen du: harremanen eta lagunaren gaineratik, moral ororen gaineratik... Gizakiak diruarekin eraiki egiten duela uste du. Egia da eraki ohi duela, baina bere burua eta beste hainbat gauza suntsitzearen truke. Hori izango litzateke antzezlanaren mamia; baina ez hori bakarrik».

Pertsonaiak bitxiak dira, eta kariaturretako pertsonaiekin zerikusi

handia dute. Kal esaterako, ez da emakume ez gizon. «Anbiguitatea eman nahi izan diogu. Gizon batek bezala hitz egiten du baina emakumeak bezala ibiltzen da», dioskue.

Testuei dagokienez, barregarriak eta zirikatzaileak dira. Ikusleak sinestu egiten du ikusten eta entzuten duena errealitatearen isla delako, egunerokoaren isla. Berari ere nozbait gertatu zaio antzeko zerbait.

Yuyu eta La burla

Yu-yu eta La Burla emociones escénicas taldeentzat Vacilus ez da lehendabiziko ekoizpena. Yu-yuko Pakik eta Milak, esaterako, kafe-antzerkian eskarmentu handia dute *El komplot* lanarekin. La Burlako Javi Alonsok, Javi Core-rak eta Lucia Ocariz argi teknikariak, gainera, musika, antzerki eta zine saiakera zenbait egin dituzte. Nahia ere dantza

kontutan jarduna da. Guztiak Euskal Herriko antzerki amateurren munduan dabilzan gazte ipurterreak dira. Beltz ikusten dute, baina, antzerki amateurren geroa. «Antzerki amateurri ez zaio garrantzirik ematen. Horren alde apustu egin behar da. Hortaz, antzerkia antolatzeke orduan programatzaileek ez liokete diruari erreparatu behar. Antzerkiak babesa behar du. Bada hasi berria den jendea, eta jende horri aukera bat eman behar zaio», esan digu Pakik.

Vacilus Saroben estreinatu zuten joan den udan, eta oraingoz emankizun gehiegi egin ez badituzte ere, gogoz dabilzala dirudi. «Beste antzezlan bat idazten ari naiz. Udazkene-ko estreinatzea nahi nuke. Berez, trilogia bat izango da. Vacilus lehendabiziko zatia da. Orain bigarren zatiarekin ari naiz», esan digu Javi Alonsok.

Etorkizunerako proiektuak behintzat ez zaizkie falta.

Ander Lipus edo antzerkia ulertzeko beste era bat. ▼



sen *Ander-ground* trilogia-
ren azken parte-
dugu. Egun-
go gizartearen
kritika dakarki-
gun komedia da
*Mis rarezas dir-
as tú*. Larunba-
tean, azkenik,
Antzerkiaren
Nazioarteko
Eguna ospatze-
ko, Gaitzerdi tal-
deak *Giro-bira* obra ekarriko digu; abangardiaren eta antzerki tota-
laren artean kulunkatzen den ikuskizuna.

ZER IKUSI

ANTZERKIA

Las últimas lunas ■ (Entrecajas-Galiardo). Gaur eta bihar, Bilboko Arriaga antzokian, 20:00etan. Larunbatean, 19:30etan eta 22:30etan. Igandean, 19:00etan.

La maldición de Poe ■ (Corsario). Gaur, Donostiko Lugaritzen, 20:30etan.

El hombre elefante ■ (Strion). Gaur, Gasteizko Principal antzokian, 20:30etan. Bihar eta larunbatean, Barakaldo Antzokian, 20:30etan. Igandean, 20:00etan.

Nerudaren postaria ■ (Maskarada). Gaur, Miarritzeko Coliséen, 21:00etan.

Arrautza delikatuak ■ (Hika). Gaur, Bilboko Kafe Antzokian, 20:30etan.

Mis rarezas dirás tú ■ (Ander Lipus). Bihar, Bilboko Kafe Antzokian, 22:30etan.

Ombra ■ (La Fura dels Baus). Bihar eta etzi, Donostiko Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.

Izarretako Bitakora ■ Bihar, Ordiziko Herri Antzokian, 22:15etan.

Dakota ■ (Tantaka). Bihar, Debako Zurbeltzu antzokian, 22:00etan.

El Castillo ■ (La Chusma). Bihar, etzi eta igandean, Bilboko Mina Espazioan, 20:00etan.

Giro-bira ■ (Gaitzerdi). Larunbatean, Bilboko Kafe Antzokian, 20:00etan.

DANTZA

Kiev-eko Operako Ballet eta Orkestra ■ Asteartean eta asteazkenean, Donostiko Victoria Eugenia antzokian, 20:00etan.

ZINEMA

El trono de sangre ■ (Zuz: Akira Kurosawa). Gaur, Beasaingo Uburbe antzokian, 21:00etan.

El muro ■ (Zuz: Alan Parker). Gaur, Iruñeko Golemetan, 22:30etan.

Marius y Jeannete ■ (Zuz: Robert Guediguian). Bihar, Iruñeko Amaia Kultur Zentroan, 20:00etan.

El espejo (Zuz: Jafar Panahi) + **Amor de madre** ■ Asteartean, Bilboko El Carmen aretoan, 19:45etan.

Los amantes crucificados ■ (Zuz: Kenji Mizoguchi). Asteazkenean, Donostiko Antzoki Zaharrean, 20:15etan.

gonistaren rola. Takeshi Kitano zuzendari apartak ere paper txiki bat izanen du Koizumiren film berrian.

Guediguianen azken proiektuak Robert Guediguian zuzendari frantziarrak, *Marius et Jeannete* filmaren egile ezagunak, bi proiektu ditu urte honetarako. *La ville est tranquille* film beltza da gauzatuko duen lehen proiektua. Horretaz gain, *A l'attaque* izeneko komedia bat ere zuzentzeko asmoa du. Ohi duen legez, Marseillan kokatuko ditu film biak, eta ohiko aktoreekin lan egiteko asmoa du.

Kafe-Antzokia antzerkiaz blai Antzerki aukera oparoa eskaintzen du aste honetan Bilboko Kafe-Antzokiak. Gaur, esaterako, Hika taldeak *Arrautza delikatuak* antzezlanaren eskainiko du. Bihar, berriz, Ander Lipus-ek *Mis rarezas dirás tú* ikuskizun berritzailea aurkeztuko du. Antzezlan hori Ander Lipu-